



## ***Laudioko EAJ Udal Taldea***

### **EAJ-PNV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA LAUDIO UDALERRIA LANDA-GARAPENERAKO "ZABAIA" ELKARTEAN SAR DADIN**

Indarrean dagoen Erregelamenduarekin bat, Laudio Udaleko EAJ-PNV udal taldearen ordezeko bozeramaile MAIDER BASTERRA IBARRETXE andreak mozio hau aurkeztu du Udalbatzaren Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

#### **JUSTIFIKAZIOA**

10/1998 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenari buruzkoan hau adierazten da:

1.- Landa-garapenerako elkarteak eragile sozial eta ekonomikoek landa garapeneko ekintzetan parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko tresnak dira.

2.- Landa Garapenerako Programa (LGP) gure eskualdeko landa-ingurunea antolatzeko eta modu iraunkorrean kudeatzeko tresna gisa balio duen dokumentua da. Horretarako eragile guztiek inplikatu behar dute, konpromisoak hartu behar dituzte eta eskura dauden baliabideak erabili, baita eskualdeko garapen integralik onena bultzatzeko estrategia eta ekimen zehatzak definitu ere.

Gainera, kontuan hartu behar da gure eskualdean Zabaia elkarteak ezaguna dela eta haren ekintza-esparruan G4 eta G5 izaerako Laudioko landa-eremuak sartzen direla. Landa-eremu horiek Eusko Jaurlaritzak egindako eta onetsitako zonifikazioan jasota zetozen, Zabaia elkartearen Landa-garapeneko 2015-2020 Eskualde-programaren barruan jaso ziren. Hauek dira zonalde horiek:

Laudio/Llodio	Beldui-Zumeltza-Olako	G5
Laudio/Llodio	Dubiriz	G4
Laudio/Llodio	Gardea	G5
Laudio/Llodio	Goienuri	G5
Laudio/Llodio	Isusi	G4



## ***Laudioko EAJ Udal Taldea***

Laudio/Llodio	Izardui-Altui-Odiaga	G4
Laudio/Llodio	Arraño Luxa	G4
Laudio/Llodio	Larrazabal	G5
Laudio/Llodio	Lusurbeilanda-Oleta	G4
Laudio/Llodio	Markuartu	G4
Laudio/Llodio	Olarte	G5
Laudio/Llodio	Saltarriaga-Launtxu	G4
Laudio/Llodio	San Bartolome-Asudui -Larrea	G5
Laudio/Llodio	Torrejón- Txirrieta Etxeoru	G4

Zonifikazio horren ondorioz eta adibide gisa, Laudioko auzo horiek EAEko landa-eremuak garatzeko eta promozionatzeko laguntzak jasotzeko hautagai izan daitezke.

Azaldutakoa oinarri gisa hartuta, Laudio Udalaren Osoko Bilkurak

### **ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA ETA BAKARRA.-** Eskatzea landa-garapenerako Zabaia elkartean kide gisa sartzea, elkartearen helburuak lortzen laguntzea eta elkartearen estatutuen arabera kide izateak dakartzan gainerako betebeharrak betetzea.

Laudion, 2017ko maiatzaren 11n

Maidier Basterra Ibarretxe

Laudioko EAJ-PNVren ordezkoko bozeramailea